



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindegua Elizalde
Miren Ilarregui Belarra
Ainhua Bereau Alttxu

2025eko maiatzaren 23an, 15:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- 2025eko martxoaren 3 eta 28ko aktak onartzea.

2. ESKAERAK

2.1.- Eider Altxu eta Naia Erregerena andreek Iturenen besta handiren bat dagoenean komuna mugikorrek jartzeko eskaera aurkeztu dute, herritarren atariak ahal den hoberena zaintzeko. Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Eskaera onartzen da. Iturengo udalak inauterietan komunak jarri zituen eta apirilaren 12an ospatu zen asteburu solidarioan Kapillako komunak ireki ziren. Udalak herriko bestetan ere, komunak jartzeko idea du.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.2.- Jose Ramón Urroz Arancibia jaunak Landernea etxearen atzekaldean kotxea eguzkitik babesteko 40 metro karratuko pergola bat eraikitzeko baimena eskatzen du, poste eta teila imitazioko planela jarritz.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Pergola jarri dezake baina bi baldintza kontutan izan behar ditu:

- Teila-imitazioko plakak teilatuan ezin dira jarri.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

- Proiekturik gabe ezin da 40 metroko izan, gehienez 20 metrokoa izan daiteke.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.3.- Haizea Ayoroa andreak, Iturengo gazteen izenean, Iturenen txozna ez dagoenez, bat egin nahi dute eta gordetzeko leku bat aukeran dagoen galdetzen dute.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Iturengo udalak egindako biltegi berrian ez dago tokirik. Aukeran bi toki kontutan izango dira: Begiratuko da mediku etxeko kontsulta zaharrean lekurik dagoen edo "Karnizeria" eraikina moldaketa batzuk eginda.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

Arkaitz Mindegia zinegotzia sartzen da

2.4.- Georgina Gail Howard andreak, bere etxeko lurzatiaren alde batera doan bidea erabilgarria izateko eskaera egiten du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Herri bidea garbitu eta sasiak moztuko dira.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.5.- Maria Teresa Agesta Vertiz andreak, Ariberria bere etxe atariko bi ateen artean harri bat jartzeko eskaera egiten du.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Espaloia errespetatu behar da. Ikusirik, leku horretan espaloia zabala dela, beste harriaren linea jarraituz harria jarri dezake baina beti 1,20 metroko distantzia gutxienezko paso utzi behar du.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

2.6.- Josu Azpiroz Bazterrika jaunak 2. Poligonoko 31 lurzatiko atarian bi poste eta katea jartzeko baimena eskatzen du, espaloia errespetatuz.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Aipatutako lurzatia berea da eta nahi izanez gero bi poste eta katea jarri dezake, beti ere espaloia libre utzita.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.7.- Rafael Unchalo Odriozola jaunak 2.poligonoko 521.lurzatian dauden bi zain irauli aprobetxatzeko baimen eskaera egin zuen. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.-Basozainaren balorazioa aiegatu arte itxarongo da.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.8.- Fermin Fagoaga jaunak Lasaga auzoan, Ameztiarrantz goitzen den errepidearen ondoko lursailaren arrisku egoera azaltzen du: Bihurgune itxia dela eta pisu handiko ibilgaiak maniobratzeko zailtasuna eta zainbait gidari zarataz gidatzen dutela. Horregatik eskatzen du gidariak mentalizatzea eta sensibilizatzea eta bide bazterrean babes sisteman bat jartzea

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Eskaera kontutan izango da eta arriskua ez egoteko babes sistema bat begiratuko da.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

2.9.- Iñaki Azkue jaunak Lasaga auzoan, Ameztiarrantz goitzen den errepidearen ondoko lursailaren arrisku egoera azaltzen du: Bihurgune itxia dela eta pisu handiko ibilgaiak maniobratzeko zailtasuna eta zainbait gidari zarataz gidatzen dutela. Horregatik eskatzen du gidariak mentalizatzea eta sensibilizatzea eta bide bazterrean babes sisteman bat jartzea

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Eskaera kontutan izango da eta arriskua ez egoteko babes sistema bat begiratuko da.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

2.10.- Javier Antonio Uranga Arin jaunak 1 zenbakiko Igeranea etxea, 1 eskuineko etxebizitzaren jabea dena, idatzia aurkeztu du 120 euroko 1055.zenbakia duen auzolana erreziboarekin ezadostasuna adieraziz.

Hurrengo kontutan hartuz;

Fundamentos de derecho

1. - Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra regula la prestación de auzolan en su artículo 53, en la que recoge en el punto quinto “La imposición y la ordenación de las prestaciones a que se refiere este artículo se regularán en la correspondiente ordenanza”.

2.- La ordenanza reguladora de la prestación personal o auzolan fue aprobada inicialmente, con el quórum legalmente exigido por el pleno del Ayuntamiento de Ituren en sesión celebrada el 25 de noviembre de 2015.

Publicado el acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra, número 255, de 24 de diciembre de 2015, y no habiéndose presentado reclamación alguna en el período de exposición pública, se considera definitivamente aprobada la Ordenanza, publicándose el texto íntegro de la misma, en el Boletín Oficial de Navarra, número 38, de 25 de febrero de 2016, de conformidad con lo establecido por el artículo 325 de la Ley Foral de la Administración Local de Navarra,

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez cumplidos los requisitos previstos en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio de 1990, de Administración Local de Navarra.

Fundamentos de hechos

1.- Efectivamente, tal y como usted menciona en el escrito entregado al ayuntamiento, usted estaría exento según el artículo 4 de la ordenanza por motivo de la edad.

Pero en el artículo 3 regula los sujetos pasivos:

“Artículo 3. Sujetos pasivos.

Estarán sujetos a la prestación personal o auzolan, los empadronados, residentes y censados en Ituren.

Si algún residente en el pueblo se diera de baja en el Padrón Municipal con el fin de no acudir al Auzolan y se comprueba que reside, será incluido en los auzolanes.

Siguiendo los usos y costumbres de Ituren, bastará con que realice la prestación personal uno de los miembros de la unidad familiar residente en un mismo domicilio.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

También estarán sujetas a la prestación las familias que, residiendo con carácter permanente en otra localidad, permanecen durante determinados períodos del año en Ituren, por disponer en la localidad de vivienda en propiedad.

Las familias cuyos miembros sean titulares de más de una vivienda en Ituren, siempre que se habiten permanente u ocasionalmente, estarán sujetas a la prestación personal por cada una de ellas.

Las viviendas propiedad de una persona exenta y cedidas en arrendamiento, están sujetas a la prestación.”

Menciona expresamente al final de dicho artículo que en el caso estar la vivienda alquilada o arrendada se entiende como sujeta a prestación.

Por ello, se entiende que a pesar de tratarse de una persona exenta al estar la vivienda alquilada si está sujeto al auzolan.

2. Se ha comprobado que la vivienda de su propiedad hay inquilinos.

Analizando el asunto, la corporación por unanimidad acuerda:

1.- No aceptar la petición de D. Uranga de dejar sin efecto el recibo nº 1055 correspondiente al auzolan por importe de 120 euros.

2.- Notificar el acuerdo al interesado.

2.11.- Josu Apeztegui Erasun jaunak 1 poligonoko 52 lurzatiaren zati bat, herri lurra dena, pikete eta alambrekin itxi nahi du azienda sartzeko. Bertan borda bat du eta berak du lurzatiaren aprobetxamendua. Itxi nahi duen zatiaren argazkia aurkezten du eskaerarekin batera.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengo erabaki du:**

- 1. Bakarrik animaliekin aprobetxamendurako ixteko baimena ematen zaio, beti herri lurra (komunala) dela oroitaraziz.**
- 2. Aprobetxamendua uzten badu itxitura kendu beharko du.**
- 3. Aprobetxamenduaren eskriturak udalan aurkeztu behar ditu, akordioa indarrean sartuko da, aurkezten duenetik hasita.**



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

3.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (26/2025- 46/2025 ebazpenak).

4.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuen txostena Iturengo uraren kalitateari buruz-- Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko Ingurumeneko departamentutik baimena Abeltzaintza dirulagutzako obrak egiteko---- 173/2025 ebazpena Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga erreformaren ondorioz murrizteegatik jaso beharreko konpentsazioa, 2025eko 1go zatia. Ituren: 2324,29€--- Iruñako Jabetza Erregistroren inskripzioak J.M.G., J.M.A.B, I.B.S eta K.I.L.M---Kantauri Konfederazio Hidrografikoaren ebazpena MC Pl2 108 lurzatiko eraikina etxebizitza bezala egokitzeko--- Kantauri Konfederazio Hidrografikoaren ebazpena Telefonica De E.SAUbaimena emanez zuntz optikoaren instalazioa baimena emanez-- Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko Ingurumeneko departamentura baimena eskaera eta baimena Josu Apezteguia oihan aprobetxamendua 1.poligonoko 168 lurzatian—Lurralde antolamenduko zuzendaritza nagusiko errekerimendua Iturengo Udal Plan Orokorriari

5.- GALDE-ESKEAK.

Ez daude galdera eskaerarik.

Eta bertzerik ezean, 17:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.